



**Bergarako
Udala**

Gizarte
Zerbitzuak

2013



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	6
DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK.....	7
KOKAPENA ETA ORDUTEGIA.....	8
BERGARAKO BIZTANLEGOARI BURUZKO DATUAK	9 - 11
2013. URTEKO SARRERA - GASTUEN BALANTZEA.....	12 - 15
URTEKO JARDUERAREN DEKRIBAPEAN.....	16
GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK.....	17 - 19
GIZARTE ZERBITZUEN ERAGINA HERRIAN.....	20
✓ 3. ADINA	21
o RAI Balorazioa	22
o Etxeko laguntza zerbitzua	22 - 27
o Tele-asistentzia zerbitzua	28
o Eguneko zentroa	28
o Egoitza	29
▪ Behin betirako egoitza	29
▪ Aldi baterako egoitza	30
o 3. Adineko elkarteak	30
o SENDIAN programako ikastaroak	30 - 31
✓ MENDEKOTASUN EGOERAK.....	32
o MBB mendekotasun balorazioa	33 - 34
o Ezgaitasun edo minusbaliatasuna	34
o Zerbitzuari lotuta prestazio ekonomikoa	35
o Familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa	35

o	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa	36
o	Laguntza teknikoak	37
o	Laguntza teknikoen lagapena	37
o	Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak	38
o	Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako.....	38
o	Elbarrituentzako aparkaleku txartela	39
o	Elbarrituentzako aparkaleku erreserba	39
o	Elbarrituei egokitutako garraioa	40
✓	PRESTAZIO EKONOMIKOAK	41
o	Gizarte Larrialdietarako laguntzak: Eusko Jaurlaritza eta Udalarenak.....	42 -46
o	Diru sarrerak bermatzeko laguntzak.....	47 - 48
o	Kotizatu Gabekoen pentsioak	48 - 49
o	Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak	49
o	LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea	50
o	Preso eta deportatuentzako diru laguntzak	50
✓	ATZERRITARRAK	51
o	Aholkularitza zerbitzuetara bideratutako kasuak.....	52
o	Itzulpen eta interprete zerbitzua	53
✓	BESTE BATZUK	54
o	Dutxa zerbitzua	55
o	Ibiltariak	55
o	Beste batzuk.....	55
✓	DROGOMENPEKOTASUNAK	56
o	Prebentzioa familian	57 - 58
o	Prebentzioa eskolan	58 - 59
o	Jai eremuko programa	59 - 60
o	Edari alkoholodunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola.....	60
o	Drogomendekotasunen inguruko aholkularitza	60 - 61
o	Mendekotasun ezberdinen tratamendurako diru laguntzak	61 - 62
✓	BERDINTASUNA	63
o	Genero indarkeriaren aurkako laguntzak	64

▪ Laguntza psikologikoa	64 - 65
▪ Aholkularitza juridikoa	65
▪ Ostatua ematea	65
▪ Emakumeei zuzendutako ikastaroak.....	66
o Genero indarkeriako kasuentzako diru laguntzak	67
o Genero indarkeria edo adingabekoen babeserako prozesu judizialek eragindako gastuei aurre egiteko diru-laguntza bereziak	67
o Berdintasun plana	68 - 70
✓ ENPLEGUA	72
o Heziketa Okupazionalako ikastaroak	74
o Enpresa-Negozioak (Ekimenak)	75
o LANBIDE enplegu zerbitzua	75 - 77
o Gizarteratzeko Ibilbideak	77 - 80
o Garapen ekonomikorako ekimenak.....	41
▪ Merkataritza indartzeko planak	81 - 82
▪ Bigarren sektorearen garapena	82 - 83
✓ FAMILIAK	84
o Arrisku edo babesgabetasun egoera arriskutsuan dauden adin txikikoak	85 - 86
▪ Balorazioak	86 - 87
▪ Esku hartzeak	87 - 88
▪ Esku hartze juridikoak	88
▪ Jarraipena	88
▪ Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adin txikikoak. Foru Aldundiaren esku hartzea	89
▪ Adin txikikoak babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean	89
o Adin txikikoak kargura dituzten familientzako diru laguntzak	90
✓ GIZARTE LANKIDETZA	91
o Elkarteei diru laguntzak	92 - 93
- 84	



- o Gobernuz kanpoko elkarteei laguntzak 93 - 95
- o Elikagaien bankuko janari banaketa 95

AURKEZPENA

Gizarte Zerbitzuen departamenduaren barnean, prestakuntza ezberdina duten profesionalen osatutako talde teknikoaren bidez, Osasuna, Enplegua eta Gizarte Arazoekin zerikusi duten gaiak lantzen dira

Bere helbururik nagusia Bergarako herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, eta horretarako dauden baliabideak gestionatu eta sustatzen ditu, arrisku-egoeretara eta marjinaziora bultzatzen duten arazoei aurrea hartzen saiatzen da eta herritarren eguneroko bizitzan parte hartzea sustatzen du.

Hori lortzeko zerbitzu honen bidez zenbait jarduera garatzen dira honako esparru hauetan: 3. adina, mendekotasun egoerak, prestazio ekonomikoak, atzerritarrak, drogomenpekotasunak, berdintasuna, enplegua, familiak eta gizarte lankidetzak.

Esku artean duzun txosten honen bidez, 2012. urtean departamenduan egindako lanaren laburpen bat azaldu nahi da. Bertan, besteak beste, eskainitako laguntza eta zerbitzu bakoitzaren azalpena, egindako lan eta eskainitako laguntzen aipamena eta zerbitzuaren azken urtetako bilakaeraren azalpen bat egiten da, gure eta herriaren egoera hobeto ezagutu ditzazun.

DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK

Udaletxeko baliabideak

✓ Departamendu burua	1(*)
✓ Gizarte laguntzaile	2(*)
✓ Drogomenpekotasun eta berdintasun teknikaria	1
✓ Enplegu teknikaria	1
✓ Gizarte teknikaria	1
✓ Administraria	1
✓ Administrari laguntzailea	1

Udaletxetik kanpoko baliabideak

✓ Gizarteratze teknikaria	1
---------------------------	---

(*) Departamendu burua eta gizarte laguntzaile postu bat pertsona berdina betetzen du.



KOKAPENA ETA ORDUTEGIA

San Martin Agirre plaza, z/g

Tel: 943 779165

Fax: 943 779182

Emaila: ongizatea@bergara.net


Arreta ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30 – 13:30 bitartean.

BERGARAKO BIZTANLEGOARI BURUZKO DATUAK


2013/12/31ko datarekin erroldatik ateratakoak

Biztanleak: 14.836

Generoa:




Adina: 3.449 pertsona, %23,24a, 65 urtetik gorakoak



Besteak 65 urtetik gora Emakumeak Gizonezkoak

Jatorria: 1.130 pertsona, herritarren **%7,61a**, atzerritarra da.




■ Bertakoak
 ■ Atzerritarrak
 ■ Emakumeak
 ■ Gizonezkoak

2013. URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA


✓ Gastua

- o Bergarako Udalaren gastu orokorra: **18.907.634,61 €**
- o Gizarte Zerbitzuetako gastu; **1.870.801,00 €**




■ UDALARAN GASTUA ■ GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuetan gastatutakotik, **440.407 €** pertsonal gastuak ordaintzeko izan da.



■ PROGRAMETAKO GASTUA ■ PERTSONAL GASTUA

Bergarako Udalak 2009 – 2013 . urteetan gizarte zerbitzuen arloan egindako gastuaren bilakaera




✓ **Sarrerak**

- o Beste erakunde batzuetatik etorritako diru laguntzak:

(*) E. Jauriaritza: 163.320,00 €
 Diputazioa: 277.949,00 €
 Herritarrek: 104.307,00 €


DANERA : 545.576,00 €




■ SARRERAK BESTE ERAKUNDE BATZUK ■ UDALETXEAREN EKARPENA

Udalak Gizarte Zerbitzuetan gastatutakoaren % 29a beste erakunde batzuetatik eta herritarren ekarpenetatik etorritako sarrerak izan dira.

Gizarte zerbitzuen gastuari aurre egiteko diru sarreraren bilakaera honakoa izan da azken urteetan.



Diru sarreraren bilakaera erakundearen arabera



2012 – 2013. urtean egondako diru sarrera jaitsiera nabarmenenak, Jaurlaritza eta Foru Aldunditik etorri da.

Jaurlaritzari dagokionez, nahiz eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako emandako diru-laguntza igo egin den, aurreko urteetako tendentziari jarraitu beste programa batzuetarako emandako laguntzak jaitsi egin dira, hala nola, Errefortsu eta gizarteratze zerbitzua, berdintasuna, Drogomendekotasunak, Lanbide eta merkataritza indartzeko ekintzak.



Aldundiari dagokionez, enplegurako laguntza berri batzuk jaso badira ere, hemen ere, aurreko urtetako ildoari jarraituz beheraka eman da sarreretan. Beherakada nabarmenenena etxeko laguntza zerbitzuaren finantziazioan izan da. Eskainitako laguntza orduak gutxi egin dira eta ondorioz hauek finantzatzeko dirua ere bai. Bestalde, berdintasun arlorako laguntza desagertu egin da.

URTEKO


JARDUERAREN

DESKRIBAPENA


GIZARTE ZERBITZUETATIK

TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK


2.238 espediente administratibo tramitatu dira 2013. urtean.



Azken urtetako espedienteen bilakaera kontutan edukiz, 2012. urtearekiko alderatuz tramitatutako espedienteetan **% 25,15eko igoera** eman da.



Espediente motari begiratzeko badiogu, 2009 – 2013. urtetako espediente bakoitzaren bilakaera ondorengoa izan da




Enplegu arloan eman da espediente igoera nabarmenena zenbaki orokorrean dagokionez. Igoera, batez ere, egindako LANBIDEko tramitazioei espediente izaera eman izanean oinarritzen da.

Zenbaki orokorrean begira, aipatzekoak dira ere Mendekotasunak, diru-laguntza eta familia arloko espedienteek izandako gorantzako bilakera.


Zenbaki erlatiboak begiratzeko badiogu, familia eta enplegu arloko espedienteetan azaltzen diren igoera nabarmenak.

Bestalde, jaitsierari dagokionez, hauek 3. adina eta eta gizarte lankidetzeko espediente kopuruan eman dira aurreko urteko tendentzia jarraituz.

Espedienteak **sexuari** dagokionez,



Jatorriari dagokionez,



GIZARTE ZERBITZUEN ERAGINA HERRIAN


- ✓ **Gizarte zerbitzuek bultzatutako ekintzen eragina herritarren artean(ikastaro, jardunaldi, e.a.): **5.876 pertsona.** (Herritarren % 39,60a)**

3. ADINA


Espediente kopurua: 218 (% 9,74a)

Generoa : % 72,47a emakumea eta % 27,52a gizonezkoa.

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen banaketa



RAI Balorazioa

Zer da

3. adineko pertsonak eguneko zentroa edo egoitza bat eskatzen dutenean, aurrez balorazio bat egiten da egokien zaizkien baliabide eta zaintzak zeintzuk diren ezarriko dituen

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
87	63	24

Etxeko laguntza zerbitzua

Zer da

Ezintasun fisiko-psikiko-sensorial edo sozial baten ondorioz, eguneko bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsona edota familiei euren etxean eskainitako laguntza da. Laguntza hau etxeko oinarritzko lanak, zainketa pertsonalekoak edo heziketakoak burutzeko da eta helburua du pertsona-familiak euren etxeetan oinarritzko premiak estalita bizi izaten jarraitzea.


Zerbitzuaren deskribapen orokorra

Artatutako kasu kopurua eta pertsonak


	2009	2010	2011	2012	2013
Kasuak	117	110	109	97	85
Pertsonak	145	137	160	119	109

Kasuen profila:

* Mendekotasuna:




Kasuen bilakaera portzentalak (%)




* Bataz-besteko adina:

77,14 urte


Adinaren bilakera



* Generoa:




Generoaren bilakaera protzentuala (%)




Orduak:

Urteko ordu kopurua: 24.543,01




Orduen bilakaera portzentuala mendekotasunaren arabera




Urteko kostua: 509.886,25 €


Azken urtetako orduen bilakaera ondorengo grafikoan ikusten da.



Sarrerak: **367.297,88 €**



Ekarpenaren bilakaera portzentuala (%)



Kasu berriak: **13**

Bajak: **16**

Tele-asistentzia zerbitzua

Zer da

Bakarrik bizi edo denbora luzean bakarrik egon behar duten pertsonek larrialdi egoera bat gertatuz gero laguntza edo arreta eskatzeko zerbitzua da.

38 eskaera eduki ditugu. 27 emakume eta 11 gizonezko.

2013. urte amaieran, **166 telelaguntza** (134 emakume eta 32 gizonezko) martxan ditugu Bergaran.

Eguneko zentroak

Zer da

Eguneko zentroak gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urte baino gehiagoko pertsonei. Laguntza 8 ordutakoa da, horretarako bereziki prestatutako leku eta instalazioetan, langile eta programa jakin batzuk bitarteko direla. Eguneko Zentroko zerbitzuan sartzen da etxetik zentrorra eta zentrotik etxerako garraioa.

15 eguneko plaza eskaera egon dira (8 gizonezkoa eta 7 emakume)

2013. urtean zehar Bergara eta Antzuolako eguneko zentroak erabili dira egondako eskaerei aurre egiteko. Bi zentro hauek eskaintzen duten plaza kopurua kontutan edukiz, plaza eskaerak egon ahala erantzuna eman da- Ez da itxaron zerrendarik egon.

Egoitza


Behin betirako egoitza

Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsonei, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

34 egoitza plaza eskaera egon dira.

Ondorengo grafikan azken urteetako bilakaera azaltzen da. Bertan ikusten denez, urtetik urtera ez da joera nabari bat azaltzen eskaera kopuruan.



2013. urtean egoitzan sartu diren Bergararrak

DANERA	MIZPIRUALDEN	BERGARATIK KANPOA
38	28	10

2013. urtean **324.835,49 €**-ko ekarpena egin du Bergarako Udalak Mizpirualde egoitzara.

Aldi baterako egoitza

Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko ezinduei, hainbat arrazoi direla eta, denboraldi jakin batez etxean bizi ezin direnean eta beti ere gero etxera itzultzeko helburuarekin.

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
19	19	0

3. adineko elkarteak

Atal honetan, Bergarako Udalak 3. adineko pertsonentzako aisialdia, elkartegintza eta beste ekintza batzuetan gastatutako dirua aipatzen da.

Danera gastatutako dirua **90.659,98 €**

Kontzeptuta:

✓ Boni Laskurain ibilbidean dagoen gizarte etxearen mantenua	68.058,75 €
✓ Boni Laskurain ibilbidean dagoen gizarte etxean inbertsioak	17.056,39 €
✓ San Joxepe elkarteari diru laguntza	2.855,00 €
✓ 87 urtetik gorako Bergararrei omenaldia	2.689,84 €

SENDIAN programa

Zer da

Adineko pertsona ezinduekin bizi diren familiei laguntzeko helburua duen programa da. Programa honen bitartez hainbat laguntza eskaintzen dira, horien artean, adineko pertsona ezindu baten zaintzailearentzako formakuntza ikastaroak, laguntza psikologikoa eta asteburuak eta jai egunak egoitza eta eguneko zentroetan igarotzeko plazak.

Formakuntza ikastaroak

2013. urtean 3 formakuntza ikastaro eman dira:

IKASTAROAREN IZENA	PARTAIDE KOPURUA
Emozioen kudeaketa	16
Laguntza teknikoen erabilera	23
Laguntzaileak bere burua zaintzeko teknikak	20
DANERA	59

Laguntza psikologikoa

Mendekotasuna duen pertsona baten zaintza eta elkarbizitzak eragindako ondorio psikologikoak lantzeko psikologo batekin laguntza saioak dira.

2013. urtean laguntza **1** eskaini da.

Asteburu eta jai egunak eguneko zentro eta/edo egoitzan igarotzea

Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen ari diren zaintzaileek aukera dute asteburu edo jai egunetan atsedean hartzea pertsona mendekoa eguneko zentro edo egoitza batera eramanda.



2013 urtean **5** eskaera egon dira (4 emakume eta gizonezko 1)

MENDEKOTASUN EGOERAK

Espediente kopurua: 648 (% 28,95a)

Generoa: % 54,75 emakumea eta % 45,24 gizonezkoa.

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



MBB mendekotasun balorazioa


Zer da

Mendekotasun egoera bat duen pertsona batekin edozein esku-hartze egin aurretik balorazio bat egiten da. Mendekotasun balorazio honek zehaztuko digu pertsona honek zein laguntzetarako eskubidea duen.

176 Mendekotasun balorazio eskaera egon dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergarako 187 mendekotasun balorazio itxi ditu 2013. urtean.

2013ko abenduaren 31ean Bergaran **510 pertsona** mendekotasun egoeran zeuden. (Kontutan eduki behar da Gradua 0 ez dela mendekotasun egoera kontsideratzen)



Sexu banaketari dagokionez, ondorengo taulan azaltzen da emakumezkoak gehiago direla mendekotasun maila daukatenak. Baita ere, zenbat eta mendekotasun maila handiagoa, emakumeen presentzia handiagoa da.

Sexu	Gradua 0	Gradua 1	Gradua 2	Gradua 3
Emakumea	68	98	96	122
Gizona	45	58	80	56
Danera	113	156	176	178

Ezgaitasun edo minusbaliatasuna

Zer da

Edozein esku-hartze egin aurretik, gaixotasun, lesio edo ezgaitasun bat duen edonork ezintasunaren balorazioa eska dezake, eskubideak zehazteaz gain, egokien zaizkien baliabide eta zaintzak ezarriko dituen.

Bestalde, ezintasun maila baloratuta edukitzea abantaila izango da lanean hasteko, mugikortasunean laguntzak jasotzeko eta autonomia pertsonala edukitzeko, baita abantaila sozial eta ekonomikoak jasotzeko ere.

203 ezintasun balorazio eskaera egon dira

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
203	98	105

2013. urte amaieran **1.485** pertsonak ezintasun maila bat onartuta zeukaten. (%33a edo gehiago)

Gradua	Kopurua	%
0-32	225	15,15
33-64	734	49,42
65-74	224	15,08
75-100	302	20,33

1.485 pertsonak daukate ezgaitasun kalifikazioa.
Herriaren %10ak.

Zerbitzuari lotuta prestazio ekonomikoa

Zer da

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez, Foru Aldundiari eguneko zentroetako eta egoitza arreta iraunkorreko zerbitzuko plaza bat eskatu eta 3 hilabeteko epean erantzunik jaso ez duten kasuei eguneko zentroko edo egoitzako plaza pribatu bat ordaintzen laguntzeko diru laguntza bat da.

2013. urtean **5** pertsonak jaso dute **laguntza**. Tramitatutako laguntzak, 4 izan dira.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
5	3	2	22.516,92 €

Familia inguruneko zaintzetarako eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa

Zer da

Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren bitartez familia inguruneko zaintzaile ez profesionalak mendeko pertsonari ematen dion arretaren gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

2013. urtean **239** pertsonak jaso dute **laguntza**. Tramitatutako laguntza berriak berriz, 54 izan dira.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
239	142	97	679.077,99 €

Zaintzaileen profila

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
239	165	74
%	69,03	30,96

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Zer da

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren bitartez mendekotasun handiko pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

11 laguntza berri tramitatu dira.

2013. urtean **44** pertsonak jaso dute **laguntza**. Tramitatutako laguntza berriak berriz 19 izan dira.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
44	31	13	219.264,61

Zaintzaileen profila

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
44	39	5
%	88,63	11,36

Zaintzaileen profilari begiratuta, bai familia barruko **ZAINTZAILEA** zein kontratatutakoa, gehiengoa **EMAKUMEA** da.

920.859,52€ banatu ditu Foru Aldundiak Mendekotasun maila bat duten pertsonen zaintza bermatzeko

Laguntza teknikoak

Zer da

Laguntza honekin ezgaitasunen bat izan edo beste batzuen menpe bizi diren pertsonen lagundu nahi zaie eguneroko jardueretan autonomo izan daitezen eta behar duten lekutara iris daitezen. Ezgaitasuna edo urritasuna prebenitu, konpentsatu, arindu edo kentzen saiatuko da honako laguntza hauen bitartez: Mugikortasunerako laguntzak: aulki bereziak, altzari egokituak, etab. Irisgarritasuna hobetzeko laguntzak: eskailerak gainditzeko laguntzak, etxe barruko egokitzapenak, etab. Komunikaziorako laguntzak: entzuteko protesiak, beste pertsonekin komunikatzeko gailuak, e.a.

57 pertsonak eskatu dituzte laguntza teknikoak.

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
57	27	30

57 pertsona hauen artean, 67 laguntza eskatu dira eta **onartuak 41 laguntza desberdin izan dira.**

Danera	Berreskuragarriak	Ez Berreskuragarriak	Stock	Kopurua €-tan
41	5	12	24	16.688,22 €

Laguntza teknikoen lagapena

Zer da

Udala etxeak bere esku dituen hainbat laguntza tekniko (hala nola muletak, ohe artikulatuak, garabiak, gorpildun aulkiak, scala-mobila, bainurako aulki bereziak, taca-taca-k eta koltxoi bereziak herritarrei lagatzeko aukera ematen du Foru Aldundiari eskatutako laguntzak iritsi bitartean.

2013. urtean **25** laguntza tekniko laga dira.

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak

Zer da

Irisgarritasuna eta bizigarritasuna oztopatzen duten arkitekturako trabak kentzeko lanengatik ordaindu beharreko udal zergan aplikatzen den %90eko hobaria.

2013. urtean emandako hobariak

DANERA	KOPURUA
7	1.098,32 €

Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako

Zer da

Eguneko zentroak, gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urtetik beherako pertsona ezinduentzako.

Egoitzen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsonei, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

2013. urtean egindako eskariak

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
7	5	2


Elbarrituentzako aparkaleku txartela

Zer da

Eguneroko bizitza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten pertsonei, ezinduentzako gordeta dauden auto aparkalekuak erabiltzeko aukera ematen dien txartela da.

2013. urtean **121** aparkaleku txartel eman dira.

Aparkaleku txartelen bilakaera azken urteotan honakoa izan da:



61 aparkaleku daude elbarrituentzat Bergaran

Elbarrituentzako aparkaleku erreserba

Zer da

Eguneroko bizitza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten auto gidarientzako erabilpen eskusiboko aparkalekuak dira. Aparkaleku hauek, norberaren etxebizitza edo lantokitik ahalik eta gertuen jartzen dira.

2 aparkaleku erreserba eskaera egon dira.

16 aparkaleku erreserba daude Bergaran.

Elbarrituentzako egokitutako garraio zerbitzua

Zer da

Debagoienako mankomunitateak eskaintzen duen garraio egokitu zerbitzua da egunero eguneko zentro eta zerbitzu berezietara joaten diren elbarrituentzat.

2013. urtean erabiltzaile bakarra egon da.


Kostua 2013. urtean **43.496,64 €**-tako izan da.

PRESTAZIO EKONOMIKOAK


Espediente kopurua: 317 (% 14,16a)

Generoa: % 34,8a emakumezkoa eta % 65,18 gizonezkoa

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen sailkapena



Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta

Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak

Zer da

Prestazio ekonomiko hau premia puntualei, batez ere etxebizitzako gastuei (alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa,..) aurre egiteko ematen den laguntza bat da. Ez da aldiro aldirokoa. Laguntza jasotzaileak edo honen familiako edozein kidek eskura dezakeen edozein baliabide edo prestazioren ordezkua eta osagarria ere izan daiteke.


Kontzeptu honen aurrean 2013an emandako aldaketa nagusia Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzen sorrera izan da. Eusko Jaurlaritzak GLL kontzeptuan emandako diru-laguntzak Bergarako premiak ez zituen guztiz erantzuten, udalak bere aurrekontutik diru kopuru bat kontzeptu hauetara bideratzen zuen eskaera guztiak erantzun ahal izateko. Urteetako bilakaera ikusirik, udalak egindako ekarpena geroz eta handiagoa dela ikusten da eta horregatik, egoera hau arautu beharra ikusi da. Horrela, Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzen ordenantza eratu eta onartu da. Funtsean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen araudian oinarritzen da eta aldaketa edo ezberdintasun nagusia erroldan datza, hau da, Udal GLLen onuraduna izateko Bergaran bi urteko errolda izatea eskatzen da.

2013. urtean onartutako laguntzak: 128

2012tik 2013ra eskaera kopurua jaitsi egin dela ikusten da eta honen arrazoi nagusia hurrengoa da: 2012an, Eusko Jaurlaritzak mantenu kontzeptuan laguntzak 6 hilabeterako ematea erabaki zuen eta honen aurrean, udalak laguntza hori beste 6 hilabetetan luzatzeko erabakia hartu zuen. Hori dela eta, hainbat pertsonak, uztailen berriz ere eskaera berri bat egin behar izan zuten eta honek, eskaera kopuruaren gorakada ekarri zuen. Aurten, hasieratik urte osorako onartu dira mantenu kontzeptuan egindako eskaerak eta ondorioz, eskaera kopurua jaitsi egin da.


Ez onartutako kasuen arrazoiak hauek izan dira: Aurrekontua agortzea, laguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzea, espedienteak osatzeko agiriak ez aurkezteak eta kontzeptu horretarako beste laguntza batzuk jasotzeak.

Ondorengo grafikoan azken urteetan jasotako laguntzen bilakaera azaltzen da.




2013. urtean emandako laguntzen onuradunen **profila** honakoa da:


*** Sexua**




***Jatorria**



*** 3. Adinekoak**



*** Guraso bakarreko familiak**




Laguntzen ezaugarriak

Onartutako laguntzen ezaugarriak dira:

DANERA	Alokairua/Hipoteka	Mantenua(*)	Besteak
126.044,42	71.790,66	50.938,55	3.687,05
	% 57	% 40	%3

(*)Mantenu (Argia, ura, gasa, telefonoa,...)




Gastua

Gastua : 126.044,42

2012. urtearekin konparatuz 19.218,08 € gutxiago gastatu dira.

Honen arrazoia Udalak jarritako dirua banatzeko araudiaren baldintza berriak dira, batez ere erroldari dagozkion baldintzak. Udalak banatutako laguntzak jasotzeko laguntza eskatu aurreko 2 urtetan Bergaran erroldatuta egon behar da, lehen 6 hilabete EAE-n zelarik. Honek, batez ere eragin die azken aldian herrira etorri diren pertsona/familiei.

Sarrerak




Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza

Zer da

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko baldintzak aldatu egin ziren 2012ko urtarilean. Baldintza berrien arabera, laguntza eskuratu ahal izateko 3 urteko errolda EAEn edo urte beteko errolda izanik 5 urteko bizitza laborala eskatzen dute. Ondorioz, pertsona kopuru bat babes sistema honetatik kanpo geratu ziren eta estaldurarik gabeko egoera behartsuan jarraitzen dute. Egoera berri honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun bat eman nahian, diru-laguntza berri bat onartu zuen 2012ko uztailan; Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza.


Laguntza hau, diru laguntza bat da eta Gipuzkoan iraunkorki bizi eta elkarbizitza unitatearen oinarritzko beharrak asetzeko, diru sarrerarik ez dutenei edo behar beste ez dutenei emango zaie, hau da, oinarritzko beharrak asetzeak dakartzan gastuei aurre egitea du helburu.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
73	19	54	324.750.37



(*)Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza 2012ko uztailan sartu zen indarrean.

Genero



Jatorriari dagokionez eskaera gehienak atzerritarrenak dira. DBE eta ELO (Lanbideko diru-laguntzak) eskatu ahal izateko baldintza 3 urteko errolda izatera igarotzeak eta beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak DBL laguntza onartu izateak, udaleko gizarte zerbitzuetan artatzen den atzerritar kopurua gutxienez mantentzea eta kasu askotan igotzea ekarri du. Ondorioz, udaletik kudeatzen diren diru-laguntza eta zerbitzuetan goera nabaritu da.

Kotizatu Gabekoen pentsioak

Zer da

Izenak azaltzen duen bezala, gizarte segurantzako sistema arruntean pentsioa jasotzeko kotizatu ez duten pertsonen pentsio bat jasotzeko aukera da. Bi motatakoak dira: jubilazio eta ezintasunekoak.

Urtea	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Kopurua	37	33	32	28	34	25	28	33	32	37	36

2013. urtean jasotako pentsioak

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
36	154.343,89 €

(*) Foru Aldundiak banatuta

Profilak

* Pentsio modalitatea

Ezintasunagatik	Zahartzaroagatik
25	11
% 69,44	% 30,55

Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak

Zer da

Foru Aldundiak gestionatzen duen prestazio ekonomikoa da eta oinarrizko premiei aurre egiteko da. Prestazio hau eskuratzeko eskatzaileak ezin du diru-sarrerarik eduki eta ez du aurretiko kotizazio beharrik. Behin prestazioa eskuratuta, onuraduna izaten jarraitzeko ezinbestekoa izango da baldintza horiek une oro betetzea.

Bi mota daude: Zahartzaro eta Gaixotasun-pentsioa.

2013. urtean jasotako pentsio kopurua

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
5	5.694,68 €

(*) Foru Aldundiak banatuta

Kopuru handiagoko pentsio eta prestazioengatik ordezkutzen ari da eta 2013. urtean modalitate honetako 3 pentsio tramitatu dira.

LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea

Zer da

Foru Aldundiak gestionatzen duen laguntza da, eta Minusbaliatuen garraio-gastuak diruz konpentsatzeko balio du. Prestazio hau eskuratzeko, eskatzaileak ez du diru-sarrerarik izango eta ez du aurretik kotizatu beharrik izango.

2012. urtean jasotako pentsio kopurua

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
1	2.098,04 €

(*) Foru Aldundiak banatuta

Preso eta deportatuentzako dirulaguntzak

Zer da

Arrazoi ezberdinengatik preso edo deportatuta dauden herritarrei familiak egiten dizkien bisitek sortutako gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoak dira.

2012. urtean emandako laguntzak


KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA
8	15.391,15 €

ATZERRITARRAK


Espediente kopurua: 5 (% 0,22)

Generoa: % 75 emakumezkoa eta % 25 gizonezkoa.

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen sailkapena



Atzeritarren etorrera mailak altuak izan direnean, atzeritartasuna edo inmigrazioarekin erlazionatutako espedienteen jaitsiera esanguratsua da. Beste urte batzuekiko atzeritarren etorrera zerbait jaitsi bada ere, espedienteen bilakaeran eragin nabarmena eduki du administrazioa mailan egondako eskuduntza aldaketak. Honela, lehen udaletxetatik kudeatzen ziren eta arlo honetan espediente kopuru altuenak suposatzen zituztenak, errotze eta etxebizitzaren egokitasun espedienteak, gaur egun eusko jaurlaritzak kudeatzen ditu (iaztik aurrerako alderaketa).

Aholkularitza zerbitzuetara bideratutako kasuak

Zer da

Espanian bizilekua izateko baimen administratiborik izan ez eta horrexegatik bazterkeria soziala pairatzeko arrisku larrian dauden edo sozialki egoera ahul nabarian dauden etorkin atzeritarrei laguntzea.

Ildo horretatik, doan informatu, aholkua eman, lagundu eta egoitza baimenen eskaeratan tramitazioa egiten eta egoitza eta lan-baimenen eskarien inguruan laguntzen du.

Zerbitzua emateko baliabide desberdinetara bideratu izan dira kasuak: atzeritarren laguntzarako elkarteetara, SOS Arrazakeria, sindikatu eta batez ere Eusko Jaurlaritzak duen HELDU zerbitzura bideratu izan dira. Baliabide hauetara iristeko ez dela beharrezkoa Udaleko Gizarte Zerbitzuen bideratzea.

3 pertsona bideratu dira aholkularitza zerbitzuetara

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
DANERA	1	2

ITZULPEN ETA INTERPRETE ZERBITZUA

Zer da

Hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten bi solaskidek elkar ulertzeko telefono bidezko aldi bereko interpretazio zerbitzua. 51 hizkuntzatan erabiltzeko dago prestatua.


5 pertsona atenditu dira zerbitzu honen bitartez eta guztira **127 minutu** erabili dira.

2013 urtean urtariletik ekainera bitartean Dualia enpresaren bitartez izan dugu zerbitzua eta 1.741,75 €-tako kostua izan du. Ekainetik abendura bitartean Eudelek eskaintzen du doan zerbitzua.


BESTE BATZUK

Espediente kopurua: 38 (% 1,69a)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen sailkapena



Arlo honetan sartzen dira arlo berezi batekin zerikusirik ez duten eta departamendutik kudeatzen diren hainbat espediente, hala nola, estatistiketarako informazio eskaera, herritarren kexak, beste erakunde batzuekiko elkarlana, ibiltariak, dutxa zerbitzua, e.a...

Dutxa zerbitzua

Zer da

Etxean dutxarik ez edo etxerik ez duten kasuentzat, garbiketa pertsonalerako ematen den zerbitzua da. Zerbitzu hau departamendu barruan lanean ari garen kasuentzat zein kasu puntualentzat da, hala nola, ibiltariak.

Dutxa zerbitzu 2 eskeini da

Ibiltariak

Zer da

Etxebizitza gabe, joan-etorrian dabiltzan ibiltariei urtean behin ogitarteko bat eta autobusez urrunen Donostia, Bilbo, Gasteiz edo Iruñera joateko txartel bat ematen zaie.

10 laguntza eman dira.

Beste batzuk

Zer da

Atal honetan sartzen dira sailkapen konkretu baten barruan sartzen ez diren espedienteak.


2013. urtean horrelako **24** espediente tramitatu dira.

DROGOMENPEKOTASUNAK


Espediente kopurua: 27 (% 2,63a)

Prebentzioan gastatutakoa; 37.306,50 €

Espedienteen bilakaera azken urteetan



Espedienteen sailkapena



Prebentzioa familian

Zer da

Kontuan izanda, Familia pertsonaren lehendabiziko sozializazio eremu naturala dela, Familian garatzen diren oinarritzko portaerak, jarrerak eta baloreak jokabide arriskutsuak saihesteko izan daitezen Familiari eskaintzen diogun laguntza da.

Hain zuzen ere, informazio, formazio eta orientazioaren bidez, seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko guneak eta baliabideak sortzen ditugu.

*** Formazio arloa**

343 pertsonengana iritsi da.

- Eskoletan lantzen diren prebentziorako programekin lotutako hitzaldiak. Hain zuzen ere, bizitzako trebetasunak prebentzioan duten garrantzien ingurukoa; alkohola, kannabisa edota drogen inguruko arriskuei buruzkoa; eta Heziketa afektibo-sexualaren ingurukoa.
- Eskoletako programez gain, beste hiru hitzaldi ere egin ditugu: “Gurasoen autoritatea, seme-alaben garapenaren oinarri”; “Nola erabili teknologia berriak familian”; “Nerabeak, familia eta drogak”.
- On-line ikastaroa: “ikasi ikasteko”


*** Orientazioa**

Etxadiren “Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa”ren bitartez, eskaintzen dugun Familiei bideratutako Orientazio Zerbitzuan honako kontsulta kopurua jaso dugu:

104 kontsulta jaso dira, horietatik denak emakumezkoak egindakoak. Kontsulta guztiak 82 familiak egindakoak dira eta horietatik familia berriak, lehen aldiz zerbitzua erabili dutenak, 43 izan dira. Azkenik, 5 kasu beste zerbitzu espezializatuetara bideratuak izan dira.

GUZTIRA GASTATU DENA: 6.950 €

Programaren bilakaera azken urteetan honakoa izan da



Prebentzioa eskolan

Zer da

Eskolan drogen mendekotasunei aurre hartzeko ikasleei, irakasleei eta ikasleen gurasoei eskaintzen zaien informazioa, formazioa, aholkularitza eta baliabideak dira. Helburua drogak hartzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoen artean kontsumoa murriztea da. Horretarako, babes faktoreak hartzen dira kontuan, eta Lehen Hezkuntzan batez ere, modu ez zehatzean, bizitzarako trebetasunak lantzen dira; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Ondorengoan, berriz, modu zehatzean drogen inguruko informazio, eta arriskuen inguruko hausnarketa bultzatzen da besteak beste.

- Erabilitako programa kopurua: **7**
- Programa guztiei eskainitako denbora: **21** ordu ikastetxe bakoitzeko
- Gurasoei eskainitako saio kopurua: **13**
- Izandako estaldura:
 - ikasleak:**1.139** (518 neska; 621 mutil)
 - inplikaturako irakasle kopurua:.....**121** (94 emakume; 27 gizon)
 - gurasoak:**247**
- Programek batatz beste jaso duten

balorazioa 0 eta 10 bitarteko eskala
batean, non 0 oso negatiboa den eta

10 oso positiboa:7,6

• irakasleek.....7,48

• gurasoek:.....7,96

• ikasleek:.....8,48

Programako partaideen kopurua: 1.139 ikasle

Kostuari dagokionez, **27.886,50 €** izan da

Jai eremuko programa

Zer da

Jai eremuan droga-kontsumoari loturiko arriskuak murrizteko, batik bat, droga ongi pasatzeko hartzen dute gazteen artean, testing izeneko esku hartzea bultzatzen dugu. Horren bidez drogen inguruko informazioa eskaintzen zaie (zein eratako arriskuak duten, zein ondorio izaten dituzten,...) eta hartu behar dituzten drogen analisiak egiteko aukera izaten dute osagaien inguruko informazioa jasotzeko.

Bi esku-hartze egin dira:

- Bergarako Pentekoste Jaietan: maiatzaren 18an
- New Guass diskotekaren irailaren 14ko jaialdian

EGINDAKO HARTZEAK	ESKU-	GUNEAN ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA	ANALISI GUNEAN ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURURA	EGINDAKO ANALISIAK
- Bergarako Pentekoste Jaietan: maiatzaren 26an		255 pertsona: - 97 emakume - 158 gizon	14 pertsona: - 4 emakumea - 10 gizon	11 analisi: - 3 hachis - 3 marihuna - 1 Kokaina - 1 anfetamina - 3 MDMA
- New	Guass	91 pertsona:	49 pertsona:	34 analisi:

diskotekaren ekainaren 9ko jaialdian	- 32 emakume - 59 gizon	- 10 emakume - 39 gizon	- 2 hachis - 5 marihuana - 4 kokaina - 10 anfetamina - 8 MDMA - 5 ketamina
--	----------------------------	----------------------------	---

Gastuari dagokionez, **2.470 €**-takoa izan da.

Edari alkoholodunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola

Zer da

Edari alkoholodunak eta tabakoa saltzen dituzten establezimenduei adin txikikoei saltzeari buruzko araudiei inguruan informazioa ematen zaie, eta salaketa aurrean Tokiko poliziek ofizioz eskua hartzen dute.

Aurten ez da espedienterik ireki.

Drogomenpekotasunen inguruko aholkularitza


Zer da

Drogen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen duen gunea da. Bertan, egoera aztertzeko eta baloratzeko laguntza eskaintzeaz gain, esku-hartzerako edo tratamendurako egon daitezkeen aukera eta baliabideen inguruko azalpenak ere ematen dira.

- Guztira **7** kasu artatu ditugu eta beste 4 kontsulta.
- 7 pertsona horietatik, **6** gizon eta **1** emakumea.

- Adinari dagokionez, 1, adin txikikoa; 2, 29-30urtekoak; beste 2k, 41 eta 45 urteen artean daude; 1, 54 urtekoa; 1,60 baino gehiago.
- Kontsumoei begira, 2 alkohol arazoekin, 4 beste drogekin arazoak. 1 ludopatien arazoa. Horietatik 2 kasu berri eta beste 5ak jarraipenekoak izan dira.
- Egoerari dagokionez: 1 alta; 1 gizarteratze fasean; 2 kartzela; 1 beste zerbitzuetara bideratua; 2 jarraipenean.

Sailkapena mendekotasun motaren arabera.



Guztira tratamendurako diru laguntzetan aurreikusita zeuden 3.000 € eta 2.979,40 € gastatu dira.

Mendekotasun ezberdinen inguruko tratamendurako dirulaguntzak

Zer da


Mendekotasunen ezberdinen inguruko tratamendua egiten ari direnentzako dirulaguntzak dira. Diru laguntza horiek bidaiak eta lehen mailako beharrianak ordaintzeko dira.

ARTATUTAKO KASUAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	KOSTUA
4	1	3	3.000 €


BERDINTASUNA

Espediente kopurua: 59 (%2,63a)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen sailkapena




Genero indarkeriaren aurkako laguntzak

Laguntza psikologikoa


Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu eta finantziazten duen laguntza da. Udaletik 1go balorazioa egiten da eta Foru Aldundira bideratzen da. .

21 kasuk jaso dute laguntza psikologikoa genero indarkeriaren ondorioz. Hauetatik 17 emakumezkoak (biktima bezala) eta 4 gizonetzkoak (erasotzaile bezala). Aipatu behar da:

- hauetatik **12 kasu** izan direla **berriak** (hauen artetik 9 emakume biktima bezala, 3 gizon erasotzaile bezala), besteak aurretik zeuden terapian.



Bilakaera azken urteetan



Aholkularitza juridikoa

2013. urtean ez da kasurik bideratu Foru Aldundiak duen aholkularitza zerbitzura. Baina Udaletik zerbitzu hori eman izan da, normalean kasu guztietan egoten delako emakumearen aldetik kezkak edota Gizarte Zerbitzuetako inizatibaz informazioa ematea.

Ostatua ematea

Zer da

Genero indarkeria kasuen ondorioz urgentziaz etxetik irten behar diren kasuentzako aldi baterako ostatua emateko baliabideak dira. Baliabide hauek Bergarako Udalaren Babes Etxea edota Foru Aldundiak dituen Urgentziazko Zentroak izan daitezke. Epe luze batetara begira, Eusko Jaurlaritzatik genero indarkeria biktimentzako Zuzeneko Esleipenerako Etxebizitza zerbitzurako deribazioa egiten da.

2013 urtean Bergaran erroldatuta ez zegoen **kasu bakarrari** eman zaio zerbitzua. Erabiltzaile honengatik Bergarako Udalak ez zuen kosturik izan. Dena dela Babes etxeko konponketa ezberdinak egiteagatik 111,33€-ko kostua izan da.


Emakumeei zuzendutako ikastaroak

Zer da

Talde dinamikak landuz, elkarren esperientzian oinarrituz, elkartu eta emakume desberdinentzako gai komunak direnak lantzen dira profesional baten gidaritzapean.

2013an Bergarako Udalak duen Berdintasun planean jasotzen denarekin bat eginez, ikastaro hauek diskriminazio edo bazterketa egoeran dauden emakumeei zuzentzen dira. Horrela bi ikastaro burutu dira: “Emozioak” eta “Lotura afektiboak”. Aipatu behar da aurten lehenengo aldiz zaintza zerbitzua jarri dela ikastaroa ikastetxe orduetatik kanpo egin eta emakume askok haurrak norekin utzi ez zituztela detektatu zelako.

PARTAIDEAK	KOSTUA
25	1.494,00€



2012. urtetik aurrera bilakaeran partaideen jaitsiera bat ikusi daiteke. Jaitsiera ikastaroan parte hartzeko kolektiboaren definizioak eragin du. (lehen herriko emakume guztiei zabaltzen zitzaien ikastaroa. 2012. urtean Gizarte Zerbitzuetatik detektatutako diskriminazio edo bazterketa egoeran dauden emakumeei zuzentzen zaie).

Genero indarkeriako kasuentzako dirulaguntzak

Zer da

Gizarte Laguntza hauen helburua biktimen eskura bizirauteko gutxieneko baliabide batzuk jartzea da, diru laguntza arruntak edota enplegu bat lortu arte haien erasotzaileengandik banantzeko aukera izan dezaten. Diru-laguntza hauek Udalak urgentzia bezala edota epe ertainago batetara Eusko Jaurlaritzak ematen ditu.

4 eskaera egon dira.

Udaleko urgentziazko diru laguntza kasu bat izan da.

Eusko Jaurlaritzara bideratu diren 3 eskaera.

Genero-indarkerian edo adingabekoen babeserako prozesu judizialek eragindako gastuei aurre egiteko diru-laguntza bereziak

Zer da

Adingabekoen babeserako neurri edota genero-indarkeria salaketa beharrezko eta Gizarte Zerbitzuetatik bultzatutako prozesu judizialak aurrera eramateko gastuei aurre egiteko laguntza da. Ez da laguntza iraunkorra, 2012 urtetik dagoen diru kopurua dagoen bitartean emango da laguntza, diru hori agortzean laguntza desagertuko da.

Eskaera 1 egon da. Konkreteki adingabekoen babeserako neurrien kudeaketa izan da. Kostua, 356,92 €.

Berdintasun plana

Zer da

2009. urtean Bergarako Udalak Elhuyar elkartearen lankidetzarekin, genero ikuspegia kontutan edukiz Bergarako herriaren azterketa egin zuen. Azterketa honen bidez bi helburu lortu nahi izan ziren: alde batetik herriaren errealitatea ezagutu genero ikuspegia eta diagnostiko bat egin eta bestetik datozen lau urtetarako berdintasun plan bat diseinatzea.

2012. urtean plana garatze honako ekintzak burutu dira:

EKINTZA	AZALPENA
Udaleko teknikarientzako prestakuntza zehatza (arloz arlokakoa) antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan.	❖ Ez da ikastarorik egin
Batzorde Teknikoa osatu, Berdintasun Planaren garapen koordinatua bermatzeko	- Urtean 2 bider elkartu zen. - Guztira 12 partaidek partu hartu zuten: 6 emakume eta 6 gizon. - Honako arloetako teknikariak: Gizarte Zerbitzuetako 4 ; Hirigintzako 2; Obra eta Zerbitzuak eta Barne Batzordeko 1; Euskarako 1; Kiroletako 1; Hezkuntza eta Gazteriako 1; Kulturako1; eta Udaltzaingotik1.
Udaleko arlo ezberdinetan egindakoak	- Zerbitzuen kontrataziorako oinarrietan berdintasuna bultzatzeko klausulak sartu: 5 oinarrietan (2 alditan IV. Prebentzio plana egiteko; Familientzako orientazio zerbitzua; museoko proiektuetako bat; herriko auzo baten bizikidetza bultzatzeko oinarrietan) - Udalean laneko sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko


	protokoloaren zirriborroa landu da. - Bergarako jai eta egun seinalatuetan sentsibilizazio a bultzatu da. - Gazteriatik “Beldur Barik” programan parte hartu dute, bideo batekin. - Kiroletako elkarteei diru-laguntzak emateko hitzarmenetan berdintasuna bultzatzeko irizpideak sartu dira. - Kiroletatik defentsa pertsonaleko ikastaroak antolatu dituzte. - Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa egin dugu.
Herri mailan egin dena Herri mailan egin dena	- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko <u>Tokiko Protokoloa garatzeko dagoen mahaia</u> 4 alditan elkartu da eta formazio saio bat egin du. - Diskriminazio- edo bazterketa-egoeran dauden emakumeei bideratutako bi ikastaro ahalduntzea lantze aldera egin dira. - GIZONDUZ-ek eskaintzen duen “Hombres, igualdad y masculinidades “ izeneko ikastaroa antolatu dugu Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak diren gizon atalde betekin - Ikasleei ematen zaien sexu-heziketan tratatu onen gaia DBH lantzen jarraitu dugu. Guztira 379 ikasleengana, 28 irakasleengana eta 76 familiengana iritsi gara. Bestalde, “Beldur barik” kanpainaren berri eman zaie eta ikastetxe batek parte hartu du bi

	bideoekin. - <u>Sentsibilizazio jarduerak:</u> ❖ Martxoaren 8an: “Nork egingo du afaria gaur gauean?. Gizon eta emakumeen denbora erabilera ezberdinduaren inguruko hausnarketa” izenburuko hitzaldia antolatu zen . ❖ Jaietan berdintasunarekin lotutako mezuak zabaltzeko jaietako programan esku-orria banatu da; iazko pegatinak berriro atera dira eta tabernetan “jaietan eraso sexistarik ez” txartelak banatu dira, bertan horrelako egoera baten aurrean nola jokatu aholkuak azaltzen dira. ❖ Azaroaren 25aren inguruan, herrian egondako genero indarkeriaren inguruan ezagutu dugun kasuen inguruko ezaugarriak kaleratu ditugu. ❖ Donostiako kapitalitatea eta bake itunaren testuinguruan Diputazioak antolatu duen “1813, historia edo mitoa” izenburuko mahai ingurua.
--	---

GASTU TOTALA	UDALAK	EMAKUNDE
48.393,27€	41.118,94	7.274,33 €

Kostu total: 48.393,27 €

Kostuaren finantziakzioa:




ENPLEGUA


Espediente kopurua: 884 (% 39,49a)

Generoa: % 40,15 emakumezkoa eta % 59,84 gizonezkoa

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan.



Espedienteen banaketa





Aurten, lehenengo aldiz, Lanbideko espedienteak ere Gizarte zerbitzuko espedienteen administratiboen artxiboan gorde dira. Hori da aurreko urteetako kopuruekin alderatuta igoeraren arrazoia.

LANBIDE eta INEM-aren bateratze prozesuak sortutako eskaera kopuruak gailurra jo duela antzematen da.

Bestalde, datu aipagarria izan da 2013. urtean enplegu arloan ekintzak burutzeko diru laguntzak jaitsiera nabarmena izan dute aurten ere.

Heziketa Okupazionalako ikastaroak

Zer da

Lanik gabe dauden 18 urtetik gorakoentzat, prestakuntza egoki bat lortu dezaten, ikastaroak eskaintzen dira Miguel Altuna Institutuan Lanbideko diru laguntzarekin:

2013. urtean ikastaro bat eskaini da, Lanbidetik jasotako diru laguntzarekin: Txirbil – harroketa bidezko mekanizazioa.

Udal enplegu zerbitzuak bideratuta, beste erakunde batzuen bitartez antolatutako formakuntza 15 pertsonen egin ahal izan dute; gizon 12 eta 3 emakume.

Bestalde, 2013 urtean onartutako diru laguntzen bitartez, urritik abendura bitartean antolatutako ikastaroa izan da:

Txirbil – Harroketa bidezko mekanizazioa

Urritik abendura bitartean 250 orduko ikastaro bat eskaini dugu Miguel Altuna Institutoan, Lanbide Euskal Enplegu zerbitzuko diru laguntzarekin.

IKASLEAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	JAURLARITZAREN LAGUNTZA
15	4	11	31.480 €

Ikasle talde honetatik 8 pertsona lan – praktikak egingo dituzte 2014ko ekainaren 20tik uztailaren 11ra bitartean Bergarako 8 enpresetan.

Enpresa-Negozioak (Ekimenak)

Zer da

Negozio-Enpresa bat martxan jartzeko asmoa azaltzen duten herritarrei aholkularitza zerbitzua ematen zaie.

Bideragarritasun plana egiteko eta hasierako pausoak, ideia negozio bihurtzeko, laguntza eskaintzen da.

Negozioak martxan jartzeko asmoarekin, **6 bideragarritasun** azterketa **plan** egiteko aholkularitza zerbitzua eskaini da 2013. urtean zehar.

Aurkeztutako kontsultetako partaideen banaketa genero ikuspegitik 2 Gizon eta 4 emakume.

Aztertutako negozio motak izan dira:

- ✓ Estetika zentroa
- ✓ Zapata denda
- ✓ Emakumeen jantzien denda
- ✓ Ostalaritza
- ✓ Akademia
- ✓ Kirol arropa denda

LANBIDE enplegu zerbitzua

Zer da

Bergarako Udaleko LANBIDE ORIENTAZIO ZERBITZUA Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzailea da eta lana bilatzeko prozesuan edonor laguntzea eta bideratzea du helburu.

Eskaintzen dituen zerbitzuak: Informazioa, Prestakuntza, Orientazioa, Laneratzeko plan pertsonala, Auto-enplegurako laguntza eta enpresentzako laguntza.


Lan eskaera eta eskaintzekin parekatzeko zerbitzuan egindako ekintzak.

URTEA	DANERA	Hasierako Elkarrizketak	Eskarietan Aldaketak	Bajak altan Jartzea	Berriztea
2013	748	121	127	67	433
2012	332	98	124	30	80
2011	275	80	76	38	81
2010	561	114	198	141	108
2009	586	106	190	200	90
2008	452	81	140	148	83
2007	452	73	149	167	63

Lanbide zerbitzuko erabiltzaile kopurua nabarmen igo da 2013an honako arrazoiengatik_


- 1.- Arrasateko Lanbide bulegoan Bergararrei tramitatutako DBE/RGI diru laguntzen onuradun guztiak 3 hilero Bergarako Lanbide zerbitzuan eguneratu behar izan dituzte euren lan eskaerak.
- 2.- DBE/RGI diru laguntzen onuradun hauek 2 hilean behin udaletxera etorri beharra izan dute Lanbidetik zehaztu zaien laneratze prozesuaren jarraipena egitera.

Zerbitzuaren bilakaera azken urteetan



Taulan ikusten denez, 2011an Lanbide zerbitzuan artatutako jende kopurua jaitsi egin zen eta berriro 2012an igotzen hasi da. Hala ere, aurreko urteetako kopuruak baino gutxiago hasi zen, nahiz eta krisi ekonomiko garaian egon. Honen arrazoia, LANBIDE

zerbitzuaren antolaketan Eusko Jaurlaritzak finkatutako irizpide aldaketak ekarri zuen. Ondorioz, 2012.urtean zerbitzua Eusko Jaurlaritzarekin soilik urria arte hitzartu zen. Bestalde, 2013ko uztailetik aurrera, Lanbide orientazio zerbitzua abian jarri zen Eusko Jaurlaritzako dekretu berriarekin, RGI onuradunei jarraipen berezia eginez.



2013ko uztailetik aurrera egindako lanagatik LANBIDE zerbitzutik **23.062 € -ko diru laguntza** jaso du Udalak.

Gizarteratze ibilbideak


Zer da

18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa abenduaren 23ko 18/2008 LEGEAK zehazten du, laguntza hauen onuradunen betebeharretako bat izango dela Administrazioarekin gizarteratzeko prozesua negoziatu eta adostasuna lortuz gero hitzarmena sinatzea. Prozesu horren helburua, laneratzea edo eta pertsona horrek izan ditzakeen beste zailtasun batzuk gainditzea eta gizarteratzea lortzea da.

Horretarako, Bergarako Udalak hainbat baliabide ditu: Alde batetik, Udal enplegu teknikaria eta bestalde, gizarteratze teknikaria SARTU enpresaren bitartez kontratatua.

Zerbitzu hauen bidez gizarteratzeko ibilbidea negoziatu eta helburuak lortzeko jarraipena egiten da.


140 pertsona gizarteratze ibilbidean daude



Sexua

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONAK
140	45	95

Burututako ekintzak




■ LANERATZEA ■ FORMAZIOA ■ BESTE BATZUK

Hitzarmenetako onuradunen profila

* Jatorria


118 pertsona etorkinak dira



Afrika Iparraldea (Sahara, Marruecos, Argelia)	29
Afrika Erdialdea eta Hegoaldea (Mauritania, Senegal, Guinea)	22
Europa Hegoaldea (Portugal)	3
Europa Ekialdea (Rumania)	8
Asia Hegoaldea (Pakistan eta Nepal)	50
Hegoamerika (Bolivia)	3
Caribe (Cuba, Republica Dominicana)	3

*** Etorkinak/lan baimena**

Gizarteratzeko ibilbidean dauden **68 ez du lan baimenik**. Beraz, ezinezkoa da pertsona hauek lan merkatu normalizatuan txertatzea.



Garapen ekonomikorako ekimenak

Merkataritza indartzeko plana

Zer da

Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia programa bat da, udalerriko merkataritza sektore gisa eta espazioan antolatzeko neurri eta jarduketak biltzen dituena.

Dokumentuaren muina merkataritzaren eta herritarren erosketa – ohituren azterketa da. Planak berarekin dakar bide publikoan obrak egitea merkataritza sektorea erekargarria izan dadin Udalerri barruko mugikortasuna errazteko.

2013an Eusko Jaurlaritzak ez du PERCO – MERKAGUNE programan Udalei zuzendutako diru-laguntzarik izendatu. Beraz, bide honetatik ez dugu diru laguntzarik eduki.

2011an Bergarako Plan berezia egin zen PERCO, azterketa zehatz baten bidez, Ikertalde enpresaren laguntzarekin eta 2012an ikerketaren aurkezpena egin zen:

- Egoeraren diagnostia.
- Eskaria eta eskaintzaren analista.
- Esku – hartze plana.

Orain, ikerketan jasotako ekintzak aurrera eramateko BERGARA BIZI egitasmoa abian jarri da, Bergarako merkatariekin orrokorrean eta Bedelkar elkartearekin lankidetzan, dinamizazio eta sentsibilizazio egitasmoa.

Urtean zehar aurrera eraman diran jarduerak honako hauek izan dira:

- 2013ko irailean sortu eta urteko kudeaketa plana zehaztu da.
- Merkatariei zuzendutako formazioa, grupoBentasen eskutik.
- Sentsibilizazio kanpaina: “Bergaran bizi, herrian erosi, danok irabazi”.
- “ Bergara Bizi Eguna” eguna ospatu da azaroak 16an.
- “ Bergara Bizi” kanpainaren bideoa sare sozialetan zabaltzeko, abenduan.
- “ Bergara Bizi” photocall, Gabonetako kontzertu emanaldian.
- 2014rako kudeaketa plana zehaztea.

Ekintza hauek burutzen, BERGARA BIZI programan 7.500 € gastu ditu Udalak

Bestalde, Bedelkar elkarteari, beraien dinamizazio ekintzekin jarraitzeko, urtero bezala, emandako diru laguntza 3.300 € izan da.

Merkataritzara Bergarako Udalak bideratuko dirua: 10.800 €

Bigarren sektorearen garapena

Bigarren sektoreak Bergaran izaten ari duen bilakaerak Udala kezkatzen du. Bergarako 2010 – 2020 Plan Estrategikoan jasotakoari jarraituz, Udal Korporazioak bigarren sektorearen egoera aztertu eta irtenbideak topatu asmoz herriko eragile ezberdinekin batera lan taldea osatu du, **BERELAN FOROA**. Bergara, Elgeta eta Antzuolako herrien garapenerako sortutako lan talde hau, informazio bilketa, gogoeta eta ekintza berrien proposamenerako gune bilakatu da eta ondoren zehazten diren helburuak ditu:

Helburu Orokorra:

- Bergara, Elgeta eta Antzuolako herrietan Bigarren sektoreak duen egoeraren aurrean irtenbideak bilatu, aurkitu eta dauden aukera aproposenak inplementatu.

Helburu Zehatzak:

- Gaur egun bigarren sektoreak duen egoeraren diagnostikoa egitea, gure inguruko egoerekin konparatuz.
- 3 Herrietan kokatuta dauden enpresen premiak zehazki ezagutu eta behar horiek asetzeko bideak landu.
- 3 Herrietan kokatuta dauden enpresak bertan mantentzeko baliabideak jarri (zergak, kokapena erraztu, tramite eta baimenak...).
- Enpresa berriak 3 herrietan kokatzeko baliabideak jarri (zergak, kokapena erraztu, tramite eta baimenak...).
- Merkatu berriak ezagutu.
- Produktu aukera berriak ezagutu.
- 3 Herrietako enpresen berrikuntza maila aztertu.
- 3 Herrietako enpresekin berrikuntza prozesuak martxan jarri.



BERELAN FOROAK, Gipuzkoa ekiten duen lurraldea ekimenaren barne, Gipuzkoako Foru Aldunditik 33.750 €-ko diru laguntza jaso du 2013. urtean.,

Berelan Forotik abiatuta, Bergara, Elgeta eta Antzuolako 3 herrietako industria eragile batzuekin lan-talde propio bat martxan jarri da: **ENPRESARE FOROA**.

ENPRESARE FOROA sektore industrialaren beraktibazioa bultzatzeko helburuarekin sortutako lan-taldea da. Bertako partaideak honako hauek dira: enpresetako ordezkariak, kontseilariak, Miguel Altuna Institutuko , Udala eta Debagoieneko Garapen Agentziako ordezkariak.


Talde honen helburu zehatzen artean, enpresen beharrak ezagutzea eta enpresen etorkizuna garatzea, daude.

FAMILIAK


Espediente kopurua: 99 (% 4,42a)

Generoa: Kasu honetan familiaz hitz egiten ari garenez, ezin dugu genero bereizketarik egin

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedieteen sailkapena



Arrisku edo Babesgabetasun egoera arriskuan dauden adin txikikoak


Zer da

Programa honen bidez honako helburuak landu nahi dira:

- ✓ Edozein arazoaren aurrean adin txikikoak dituzten familiei zuzendutako aholkularitza edota informazio zerbitzua.
- ✓ Babesik gabe geratzeko arriskua duten adin gabeak detektatzea.
- ✓ Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden adin txikikoen egoeraren balorazioa.
- ✓ Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden adin txikiko kasuetan esku hartzeak bideratzea.
- ✓ Babesik gabe geratzeko arriskua duten adingabeen familiekin egoera hauei aurre hartzeko ekintzak garatzea.
- ✓ Babesgabezia arrisku larrian dauden adingabe kasuak Foru Aldundiari bideratzea.

Guztira 128 adingabeko kasu egon dira. (56 gizonezko eta 72 emakumezko).

Ondorengo taulan azken urteetako bilakaera ikusten da.




Kasuen kopuru bilakaerari dagokionez, urtetik urtera kasu kopurua igotzen dela ikusi daiteke. Igoera hau ondorengo faktore ezberdinengatik eman daitekeela aipatu daiteke:

- Zorionez, gaia gero eta gehiago ezagutu eta garatu da, Erakundeek (eskola, pediatria, ertzaintza, aisialdi erakunde...) sentsibilizazio eta ezagupen maila altuagoa daukate eta ondorioz kasu gero eta gehiago eta azkarrago detektatzen dira.
- Babesgabekotasunak neurtzeko tresnak aldatu diren bakoitzean zerbitzu espezializatu baten konpetentzia izan zitezkeen kasuen muga parametroak urrunago jarri izan dira. Hau da, Udaletatik Foru Aldundira bideratzeko kasuak gero eta arrisku maila handiagoa izatea behar dutelarik eta ondorioz, Udalak bere gain hartu behar ditu.
- Gaur egungo krisi egoerak kasuak larriagotuko dituela aurreikuspena.

Aurreikusten da kasu kopuruak igotzeaz gain, hauek beharko duten espezializazio maila handiagoa izango dela.

Balorazioak

51 adin txikikoren egoeraren balorazioak egin dira (23 emakume, 28 gizon), **33 kasu**.



Baloratu diren kasuen igoera ikus daiteke. Datuak jasotzerako orduan aldaketak egin direnez eragina izan dezakeen arren, arlo honetan azken urtetan eman den garapena azpimarratu behar da: gaian ezagutza gehiago dago, erakunde ezberdinen artean koordinazioa asko hobetu da eta ondorioz detekzioa lehenago ematen da. Batez ere ikastetxeetan nabari da.

Adintxikikoei parte hartutako arrisku faktoreak tarteko egon diren, **3 gertaera** eman dira, guztira gutxi gora behera 20 bat gazte. Udaletik erantzun ezberdina egon da eta ondorioz Gizarte Zerbitzuek departamentu hontan horrelako egoeretan jarraitu beharreko prozedura proposatu zuen eta departamentu ezberdinen artean lanketa bat egin zen.

Baloratutako kasuen bilakaera 2013an:

5 kasutan babesgabetasun egoera arrisku arina ala ertaina baloratu denez Udaleko esku hartzean hasi dira.

Beste **5 kasutan** babesgabetasun egoera larria dela baloratu denez Foru Aldundira bideratu dira eta Foru Aldundiak kasu guztiak onartu ditu.

Gainontzeko kasuekin balorazioan jarraitzen da, babesgabetasun arrisku arina dagoela baloratuta jarraipenera pasa dira ala arriskurik ez dagoela baloratu denez kasua itxi egin da.

Esku-hartzeak

Zer da

Familia arazo edota arazo psikosozialengatik arrisku egoeran dauden familien egoera gainditzeko laguntzea du helburu, laguntza psikosoziala nahiz famili hezkuntzaren bitartez. **27 adingabekoei** interbentzioa burutu dugu.

Familia hezitzailearen bitartez **19** adin txikiko, **11** familia (kasu).

2012an esku hartzean hasi diren kasuak eta aurreko urtetatik 2012an interbentzioan jarraitzen duten kasuak berezitu dira.

NOIZTIK esku hartzea	ADINGABEKOAK GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	KASUAK
2013an, berriak	5	2	3	3
Aurretik	14	8	6	8

Psikologoaren bitartez **0** adin txikiko.

Zerbitzuaren kostua guztira **30.993,97 €**-takoa izan da (famili hezitzaile zerbitzuak 54.698,02€ eta psikologo zerbitzuak 3.235,82€-ko kostua).

Kale hezitzaileen bitartez, kalean bertan esku hartzen dugu, oso esku hartze maila eta mota ezberdinak eginez. 2013an **60 bat adin txikiko** (gutxi gora behera 50 gizonezko eta 10 emakumezko).

Zerbitzu hau Gazteria Departamentutik eramaten da, beraz Gizarte Zerbitzuek ez dute kosturik.

Esku-hartze juridikoa

Adingabekoen babeserako neurri hartzea beharrezko diren **3 kasuren** prozesu judizialetan parte hartu da. Beti epaitegitik eskatuta, kasu batzuetan informe bat aurkeztuz, beste batzuetan deklaratzuz.

Jarraipenean

Esku hartze espezifikoa (familiarra, psikologikoa, soziala...) behar ez dutela baloratu diren edota esku hartzea bukatu duten familien jarraipena egiten da. Kasu kopuru hauek kontabilizatzeko oraindik sistema egokitzen ari gara.

Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden Adin txikikoak. Foru Aldundiaren esku hatzean.

Familia zailtasun edota arazo psikosozialengatik babesgabetasun arrisku larri egoeran dauden familien egoera gainditzen laguntzea du helburu. **12 adin txikikorekin** (5 emakume, 7 gizon) **7 kasu/familiekin** interbentzioa burutzen ari da.

2013an **5 kasu berri** bideratu da Foru Aldundiara, 8 adin txikiko, 6 neska eta 2 mutil. 2012. urtean kasu bakarra bideratu zen.

Kontutan izanda kasu hauek larriak direla, kasu asko direla baloratzen da. Dena dela, aurrez aipatutako ezagutzak eragina duela uste da eta Babesgabetasun egoerak baloratzeko “Balora” tresna hobeto ezagutzeak eragina izan dezakeela esan genezake.

Adin txikikoak Babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean.

Adin txikikoa babesgabetasun egoera batetan aurkitzen denean, babeste aldera, Foru Aldundiak adin txikikoaren tutoretza beregain hartzen du eta aldi baterako edota behin betiko familiarengandik banandu.

2013an **EZ DA** babesgabetasun egoera kasurik eman da. **Guztira gutxi gora behera 7 kasu** daude Bergaran egoera horretan, ezin da kopuru zehatzik eman hemendik informazio minimoa dagoelako.

Adin txikikoak kargura dituzten familientzako dirulaguntzak

Zer da

Arrisku egoeran dauden edota egon daitezkeen adingabekoen familiei zuzenduriko diru laguntzak dira. Laguntza hauen bidez adingabekoen marjinazioari aurrea hartzea eta ikasleen arteko ezberdintasun ekonomikoei aurre egin nahi zaie.

Laguntza hauen bidez, gastu eskolarrak (materiala, irteerak,...) zein adingabekoaren oinarritzko beharrak (arropa, mediku gastuak,...) ordaintzen dira.

2013. urteko laguntzak


LAGUNTZA KOPURU	ONURADUNAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	KOSTUA
5	5	2	2	680,00€

Iazko datuekin alderatzen baldin badugu jaitsiera bat egon dela ikusten dugu. Ez dugu pentsatu behar gutxiago dagoelako denik. Horren arrazoiatariko bat izan daiteke gaur egun leihatilan bertan esaten zaiela adingabekoen babesgabetasun arrisku egoeran egonik balorazio, esku hartze edota jarraipen prozesuan egotea onuradun izateko baldintza bat dela eta beraz horrela ezean eskaera egitera ere ez dira heltzen.


GIZARTE LANKIDETZA

Espediente kopurua: 43 (% 1,92a)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen sailkapena



Gizarte zerbitzu arloko elkarteei diru laguntzak

Zer da

Diru-laguntzak emateko deialdia da. Bergarako Udalerrian gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua dago. Helburua da elkarteak sustatzea eta herritarren arteko elkartasuna, **bolondresa** eta herritarrak antolatutako ekintzetan parte hartzera bultzatzea.


Guztira **15** taldek aurkeztu zuten eskaria

8 taldek jaso dute laguntza

7 taldek ez dute **2013-05-06an** GAOn argitaratutako baldintza pleguan jasotako betebeharreko baldintzak betetzen.

8 elkarteak jaso dituzte diru laguntzak

Laguntzak hartu dituzten elkarten jatorria



Banatutako diru laguntza: 19.286 €

Laguntza jaso duten elkarteak honako hauek izan dira:

Elkartea	Proiektua	€ Diru laguntza eskariaren arabera
Nagusilan	Nagusiei laguntza pertsonala	675,00
DYA	Osausun arloa	2.624,50
ATZEGI	Aisialdia elbarrituei	2.938
Odol emaileak	Odol ateradiak eta sentsibilizazio hitzaldiak	2.905
Aransgi	Zeinu mintzairaren formazioa	2.375
Caritas	Tailer okupazionala atzeritarrekin	5.248
Acabe	Jatearen nahasmendu arloko sentsibilizazio hitzaldiak	470
San Joxepe	Astialdiko ekintzak jubilatuentzat	2.050

Egin diren ekintzak honako hauek izan dira: Jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, mahai informatzaileak, orri informatzaileak, bolondres lanak Udalak antolatutako ekintzetan.

Gobernuz kanpoko elkarteei laguntzak

Zer da

Gobernuz Kanpoko Erakundeen hainbat programa aurrera eramateko diru laguntzak dira. Programa hauen helburuak honako hauek izan behar dira:

- ✓ Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzea.
- ✓ Goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko interesa sortzea, Bergaran egingo dituzten ekintzen bidez.

Aurtengo deialdian 10 proiektu aurkeztu dira eta guztiak lankidetzarako izan dira.

10 proiektu hauetatik, 3k ez dute laguntzarik jaso: 2k eskaria epez kanpo aurkeztu dute eta 1ek, 2013-05-06 an GAO n argitaratutako baldintza pleguan jasotako betebeharreko baldintza ez du bete.

Guztira 7 proiektu finantziatu dira 37.025€

Diru laguntzak honako erakunde eta herrialdetara bideratu dira: BUBISHER (Sahara), MUNDO SOLIDARIO HELBURU (Nicaragua), AMSOGRA (Nicaragua), SERSO SAN VIATOR (Africa), GIPUZKOAKO "OSCAR ROMERO" SOLIDARITZA BATZORDEA (El Salvador), KOMITE INTERNAZIONALISTAK (Nicaragua) eta NDANK NDANK (Africa).

Lankidetzaren proiektuak

Elkartea	Proiektuen Arloak	Diru laguntza €-tan
BUBISHER (Sahara)	Osasun arloa	6.550
MUNDO SOLIDARIO HELBURUA (Nicaragua)	Osasun arloa	4.000
AMSOGRA (Nicaragua)	Infrastrukturak (etxebizitza)	3.635,90
SERSO SAN VIATOR (Africa)	Hezkuntza	2.998,42
OSCAR ROMERO (El Salvador)	Hezkuntza	9.502,18
NDANK NDANK (Senegal)	Infrastrukturak (eskolak)	2.338,37
KOMITE INTERNAZIONALISTAK (Nicaragua)	Hezkuntza	8.000

Sentsibilizazio proiektuak

2013an ez da diru laguntza eskaerarik aurkeztu.

Elikagaien Bankuko janari banaketa

Zer da

Bergarako Udaleko, Caritas elkarteko, Elikagaien Bankuko eta herritar bolondres batzurekin lankidetzan hilero janari banaketa egiten da Udalak martoko kalean utzitako lokalean.

Udalak hilero banaketa egin ahal izateko, garraiorako baliabideak eskura jartzen ditu. Onuradunek Caritas elkartean izena ematen dute eta bertan jasotako orria aurkeztu behar izaten dute janari otarra jaso ahal izateko, hilero azken asteazkenean.

2013an Bergaran urtean zehar 1.347 familiak jaso dute elikagaien otarrak.

Hileroko banaketa kopurua honako hau izan da.

- Urtarrila – 106 familia
- Otsaila – 107
- Martxoa – 73
- Apirila – 102
- Maiatza – 125
- Ekaina – 144
- Uztaila – 143
- Iraila – 151
- Urria – 138
- Azaroa – 132
- Abendua – 126